




Emakume izoztua

Annie Ernaux

Liburua ia-ia has eta buka irakurtzen da. Ez zaitu bere erretorika landuagatik edo bere estilo liluragarriagatik harrapatuko, baina idazkera funtzionala da, eraginkorra da eta xarma, nortasuna ere badu.

Annie Ernauxek aurkezten digun pertsonaia hura bera izan daiteke, hau da, bere bizi esperientzian oinarritutako pertsonaia bat, emakumea, eta, aldi berean, bere eremu geografiko edota kulturean bizi den beste edozein emakume ere izan daitekeena. Funtsean, esango nuke horixe dela idazle honen arrakastaren arrazoia edo arrazoietakoa bat: isla bat bezalakoa izan da, non milaka eta milaka emakumek euren burua islatuta ikusi duten.

Narrazio lineala da, protagonistaren haurtzaroarekin hasten dena, eta bere begirada amarrugabe baina asmoz betetako horrekin ikusten duena kontatzen digu. Inguruan dituen emakumeak nolakoak diren deskribatzen digu: ama, izebak, amonak... Hortik aurrera, neskatoa hazi ahala, estridentziarik gabe hitz egiten digu genero prototipoez eta klixeez, emakume batengandik "espero denaz", rolez...

Hala ere, bitxia da, haren gurasoek ez baitute "bultzatzen" emakume konbentzionalaren rolak besterik gabe betetzera, hau da, gurasoen helburua ez da alaba egun batean ezkontzea, seme-alabak izatea eta etxekoandre bihurtzea *secula seculorum*, alderantziz baizik: neskaren gurasoek —herri txiki batean dendatxo bat daukaten euren konturako langile saiatuak— alaba ikasketaduna izatea, lanbideduna izatea eta bere kasa ondo bizitzeko gai izatea beste ametsik ez dute.

Are gehiago, protagonistaren gurasoak huts eginda sentitzen dira, haurdun dagoela esaten dienean. Haurdun geratze horrek nolabaiteko harridura eragiten du irakurlearengan, zeren, azken finean, zergatik geratzen da haurdun karrerako azken urtea ikasten ari denean...? Haur jaioberri baten ardura hartuta, ezer gutxi egin dezake oposizioak prestatzeko; eta, hain zuzen ere, suspenditu egiten ditu. Beraz, senarra lanera eta bera... etxera, etxekoandre lan egitera.

Baina, zergatik egiten du hori? Zergatik ez du hobeto planifikatzen horrelako urrats garrantzitsu bat? Zerk eragozten zion? Amatasunari buruz egiten dituen iruzkinak ez dira haurrak izatearekin obsesionatuta dagoen emakume batenak, ez horixe. Kultura eta burujabetza pertsonal nahikoak zituen ezetz esateko. Gainera, alde horretatik, familiaren —gurasoen— eta batez ere, amaren babes osoa zuen.

Gizartea? Garaiko gizartea al da bera bultzatu duena ama goiztiarra izatera? Ez dakit... Batzuetan sumatu izan dut protagonistak (Annie Ernaux) baloiak kanpora botatzen dituela eta korrontearen esku utzi dituela bere burua eta bere patua. Bestalde, hori gutxi balitz, berehala geratzen da haurdun bigarren semeaz. Artean jarraitzen zuen marmarka lehen semea ekarri izanaz, eta horra haurdun berriro bigarrenaz. Ematen du gauza bat esan eta justu kontrakoa egiten duela.

Hori guztia alde batera utzita, protagonistak bere bakardadea deskribatzen digu: nola uko egin behar dion bizitza profesional eta soziala izateari, senarrak hori dena izan dezan; hasieran jatorra eta aurrerakoia zirudien senar hori nola hasten den handik gutxira beste aurpegi bat erakusten (aurpegi "tradizionalago" bat, Matxistofeles-en ukitu garbiekin). Bestalde, protagonista kanpoan lan egiten hasten denean, berehala ohartzen da orain lanaldi osoko bi lan dituela: bata lizeoan (irakasle gisa) eta bestea etxean, etxeko lanak egiten: haurrak zaindu, erosketak egin, otorduak prestatu, etxea garbitu... Den-dena. Senarrak ez du deusik egiten etxean.

Eta une horretan, harrapatuta sentitzen da, edo hark berak dioen moduan, izotz puska baten gisa sentitzen da, izoztuta bezala, bizitza propiorik gabe, bere ametsetako asko zapuztuta, bizitza ondotik igaroko balitzaio bezala... bera bazterrean utzita.

Annie Ernauxek talentu handiz kontatzen du edozein emakume izan litekeen emakume baten patua. Hala ere, zenbait momentutan, galdera hau egin diot neure buruari: liburuko protagonista ez al da "trantsizioko" emakume bat...? Hau da, Annie Ernaux 1941ean jaio zen; beraz, gaur egun 83 urte ditu. Eta nik uste dut gauza asko aldatu direla —hoberako— gaur egungo emakumeen bizitzetan, behintzat gizarte modernoetako emakumeen kasuan.

Beste gauza bat da kapitalismo basatiak gu guztiok (bai gizonok bai emakumeok) kosifikatu egitea (gauzaki bihurtzea), eta horren ondorioz, azkenean denok bukatzea bizitzen lan egiteko, bizitzeko izan beharrean.

Nolanahi ere, nire ustez, egungo gizarteek tresna askotxo jartzen dituzte gu guztion esku, emakumeek zein gizonek errazago erabaki dezaten nola bizi nahi duten, norekin bizi nahi duten eta nortzuk izan nahi duten. Eta, egia bada ere, ezen, "bizimodu tradizionala" arrastaka eramaten gaituen ibai baten korrontea bezalakoa dela, egia ere bada, orobat, gaur egun gero eta baliabide gehiago daudela, beharrezkoa izanez gero, korrontean gora egiteko, igerian egin beharrik gabe: badaude itsasontziak, txalupa motordunak, ur motorrak... (teknologia, alegia)

Zorionez, ez gara ez Afganistanen ez Saudi Arabian bizi. Eta Paradisuan ere bizi ez garen arren, uste dut erabaki asko gure esku daudela. Beste kontu bat da erabaki horiek hartzeko orduan gehiago edo gutxiago asmatzea, emakumeak izan ala gizonak izan.